
Prensa oharra


Erakusketa, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Astearekin lankidetzan antolatu dena, abenduaren 13ra arte egongo da zabalik Kutxa Kultur Plazan

Fernando Mircalak *Etorkizun Dotorea* erakusketa aurkezten du Kutxa Kultur Plazan.


Fernando Mircala

Etorkizun Dotorea El Futuro Elegante

Erakusketa — Exposición
Urriak 14 octubre — abenduak 13 diciembre

 Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror

www.sansebastianhorrorfestival.eus



@kutzakultur
#kutzakulturplaza

www.kutzakultur.eus

Donostia, 2020ko urriaren 14a. *Etorkizun Dotorea* mundu baten perfekzio adeitsu eta soilenaren gainean eraikitako proposamen grafiko estetiko-metafisiko bat da. *Etorkizun Dotorea* idealizazio estilizatu bat da, grabitaterik gabekoa eta poetikoki delineatutakoa, non izakiak, giroak eta makinak integratzen diren funtzionaltasun harmoniatu batean, *Streamline* diseinuaren gustu onez eta jolas klasikoen plastikotasun hedonistaz eta moldakorraz.

Giza prototipo dotoreak aire-ibilgailu elektromagnetiko atseginetan mugitzen dira; etxe flotatzaille meheetan bizi dira, non formen eta koloreen erosotasunak gure orainaldi osatugabeen sumatu besterik ezin ditugun zentzumenezko plazeraren promesa ekartzen baitu; eta, jakin-min filosofiko batez, kosmosaren eta adimenaren sektoreak arakatzen dituzte; ideien, aurrerabidearen eta proiektu berrien horizonte habitagarria handitzen duten lekuak.

Etorkizun Dotorea bizitza experimental eder, atsegin eta gozo baten amets utopiko bat da; proiektio bat da, xenda bat, gizarte estruktural, formal eta etiko gizatiarrago, askeago eta zuzenago baten guraria. *Etorkizun Dotorea* “ume” artista baten paperezko amets xaloetatik sortutako fantasia bat da; ume izateari uko egin nahi ez dion artista bat, borrokan ari dena errealitate zapaltzailearen makineria prosaikoari arima ez saltzeko; errealitate bat, azken batean, aldatu eta berriro diseinatu daitekeena, munduan bizi diren eta biziko diren giza espiritu eder diren bezainbeste forma anitz eta dotoreen bidez.

FERNANDO MIRCALA

Barne Diseinu eta Industria Diseinuko lizentziaduna, Madrilgo Eskola Ofizialean. 90eko hamarkadaren hasieran, Jesus Morenoren arkitektura efimeroko estudioan egin zuen lan, erakusketak diseinatzen eta muntatzen. Handik gutxira, kolaborazioak egiten hasi zen ilustratzaile gisa Espainiako argitaletxe nagusietako batzuetan.

Haren lan teknika berezia kartoi mehez eta arte ederretako paper estanpatuez, eskuz eginez eta testurizatuez egindako koadro-dioramen prestaketa bolumetrikoan datza.

1998tik aurrera, beraren edo beste batzuen ipuin eta poesia liburuak ilustratzen hasi zen, bere dioramen argazki teknika erabilia batez ere; horien artean, *Siniestras Amadas* eta *Eclipse en Malasaña* nabarmentzen dira, biak ere Sinsentidok argitaratutakoak.

Banakako erakusketa asko egin ditu. Garrantzitsuenen artean, honako hauek ditugu:

- Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zine Astea (2001 – 2006)
- Madrilgo Ateneoa.
- Xelmirez jauregia, Santiagoko Katedrala (2012)
- Center Stage Gallery, Los Angeles, Kalifornia (2015)
- Fnac, Donostia (2016)
- Cine, Papel y Tijeras* erakusketa, Donostiako Zinemaldian (2017)

2014an Raul Garcia (Disney estudioetako marrazkilari ohia) marrazkilari eta animaziogilearekin kolaboratu zuen, *Extraordinary Tales* (2015) Edgar Allan Poeren ipuinetan inspiratutako animaziozko film luzearen eszenarioak eta eskulturak egiten.

Datak eta ordutegiak

Erakusketa publikoari irekita egongo da Kutxa Kultur Plaza erakusketa gunean. Sarrera doakoa izango da 2020ko urriaren 14tik abenduaren 13ra, Tabakalera eraikinaren irekiera-orduetan:

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 21:00

Ostiraletan: 09:00 - 22:00

Larunbatetan: 10:00 - 22:00

Igande eta jaiegunetan: 10:00 - 21:00.

Sarrera doan



@kutxakultur
#kutxakulturplaza